

## IRAUNKORTASUNAREN INGURUMEN ALDERDIA LEGAZPIN

**Hauxe da garapen iraunkorra: egungo belaunaldiaren behar guztiak asetzen dituen baina bere beharrak asetzeko etorkizuneko belaunaldien ahalmena kolokan jarriko ez duen garapena.** Brundtland txostena. 1987. NUESTRO FUTURO COMUN.



### INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA, ZER DA?:

**Ingurunea eta ingurumena errespetatzea eta gordetzea  
Gutxiago eta hobeto kontsumitzea  
Bizimodu egokia eta portaera-arauak hartzea  
Planetako ingurumena errespetatzea**

**ETA HORRETARAKO PREST GAUDEN JAKIN BEHAR DUGU HARTU BEHARREKO NEURRIAK HARTZEKO (enpresek, administrazioak eta herritarrek) ETA ALDATU BEHAR DENA ALDATZEKO.**

## ZER DA, INGURUMENAREN IKUSPUNTUTIK, UDALERRI IRAUNKORRA IZATEA?

Udalerri iraunkorra bere ondasun naturalak zaintzen eta babesten dituen da; halaber, kontsumo arduratsua bultzatzen duena, hirigintza modu egokian planifikatzen duena, erabakiak hartzean ingurumenaren ikuspegia zaintzen duena eta ingurumen arloko gaiak interesa duten herritar guztien parte-hartzearekin aztertzen dituen.

Honako konpromisoak hartzen ditu bere gain:

Guztiok natur ondasun komunak erabiltzeko aukera berak izan ditzagun zaintzea, babestea eta bermatzea:

- × energia primarioaren kontsumoa murriztea eta energia garbien nahiz berriztagarrien kontsumoa handitzea.
- × uraren kalitatea hobetzea, ura aurrezte eta modu eraginkorragoan erabiltzea.
- × biodibertsitatea indartzea eta areagotzea eta berdeguneak nahiz natur guneak zaintzea eta gehiago sortzea.
- × landa-lurra zaintzea eta babestea.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

## I-a ERANSKINA



- × lurzoruaren kalitatea hobetzea, ekoizpen ekologikoko lurrak babestea eta nekazaritza nahiz basogintza iraunkorrak sustatzea.
- × ingurumenean eta osasun publikoan kalteak eragiten dituzten faktoreen eragina murriztea: isurketak airera, ur-kutsadura,....
- × paisaia-ingurumena baloratzea.

### **Baliabideak tentuz eta modu eraginkorrean erabiltzeko ohiturak erraztea eta suspertzea eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak sustatzea.**

- × hobeto kontsumitu: hondakinak ekidin eta murriztea, gehiago birziklatzea eta berrerabiltzea, dagoen araudiaren arabera eta teknologia hobereana erabiliz birziklatu ezin izan diren hondakinak jardunbide egokien arabera kudeatzea eta tratatzea.
- × gutxiago kontsumitu: bizimodua aldatu, kontsumoak arrazionalizatzea, energia premiarik gabe kontsumitzea saihestea eta energia-eraginkortasuna hobetzea kontsumitzen den lekuan.
- × beste gauza batzuk kontsumitu: kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak biziki sustatzea, batik bat etiketa ekologikoa duten produktuak, produktu organikoak eta bidezko merkataritzako produktuak.

### **Hirigintza diseinatzen eta planifikatzen eginkizun estrategikoa izatea.**

- × leku degradatuak eta bertan behera utzitakoak berreskuratzea eta berrerabiltzea.
- × hiriak neurrigabe handitzea eragozte, hiri-dentsitate egokiak izatea eta hiriaren garapena ustiatu diren lekuetara bideratzea berdeguneetara bideratu behar.
- × lurzoruaren erabilera mistoa bultzatzen duen hirigintza bermatzea, oreka lortzea lantokien, etxebizitzaren eta zerbitzuen artean eta bizilekuei lehentasuna ematea hirigunean.
- × gure hiriko kultur ondarea behar bezala gordetzen, berritzen eta berrerabiltzen dela ziurtatzea.
- × eraikuntza eta diseinu iraunkorrak egiteko eskakizunak ezartzea eta kalitate handiko arkitektura bultzatzea eraikuntzako teknologia berriak indartuz.
- × hiri-ingurune atsegina eta abegikorra sortzea, pertsonen lehentasuna emango diena eta gizarte-harremanetarako guneak bultzatuko dituen.

### **Mugikortasun iraunkorreko ereduak irmotasunez sustatzea.**

- × motordun garraio pribatuarekiko mendekotasuna txikitzea eta guztien eskura dauden alternatiba erakargarriak bultzatzea: red de transporte público, gestión de los desplazamientos...
- × garraio publikoan, oinez eta bizikletaz mugitzen den jende-kopurua areagotzea.
- × emisio gutxi igortzen dituzten ibilgailuen erabilera bultzatzea.
- × hiriko mugikortasun iraunkorrerako plan integratuak garatzea.
- × garraioek ingurumenean eta osasun publikoan duten eragina murriztea.



LEGAZPIKO  
UDALA

## I-a ERANSKINA



### Garapen iraunkorra lortzeko eta klima babesteko erantzukizuna gure gain hartzea.

- × ikuspegi estrategiko eta integratu bat garatzea eta martxan jartzea klima-aldaketa arintzeko eta berotegi-efektua eragiten duten gasen emisio-kantitatea iraunkorra izan dadin lan egitea.
- × ingurumena babesteko politika gure politiken muinean sartzea energia-, garraio-, kontsumo-, hondakin-, nekazaritza- eta basogintza-arloetan.
- × klima-aldaketak izan ditzakeen kausei eta eraginei buruzko kontzientzia handitzea (jarrerak aldatzea sustatuko duten informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak) eta prebentzio- eta egokitzapen-ekintzak sartzea klima-aldaketari buruzko gure politiketan.
- × mundu osoko ingurumenean eragiten dugun inpaktua murriztea eta ingurumen-justiziaren printzipioa indartzea.
- × ingurumenaren aldeko jokabide iraunkorrakoak sustatuko dituzten araudiak egitea
- × zerga sistema egokitzea, ingurumenaren aldeko jokabide iraunkorrakoak sustatzeko xedearekin

2007ko maiatza

## IRAUNKORTASUNAREN GIZARTE ALDERDIA LEGAZPIN

***Hauxe da garapen iraunkorra: egungo belaunaldiaren behar guztiak asetzen dituen baina bere beharrak asetzeko etorkizuneko belaunaldien ahalmena kolokan jarriko ez duen garapena.*** Brundtland txostena. 1987. NUESTRO FUTURO COMUN.



***Hiriek hiru helburu lortu nahi dituzte: justizia soziala, ekonomia iraunkorra eta ingurumenaren iraunkortasuna. Justizia sozialak nahitaezkoa du ekonomiaren iraunkortasuna eta berdintasuna; azken horiek, era berean, ezinbestekoa dute ingurumenaren iraunkortasuna.*** Hiri eta Herri iraunkorren Europako Gutuna. Aalborg 2004.

### ZER DA, GIZARTE ARLOAREN IKUSPUNTUTIK, UDALERRI IRAUNKORRA IZATEA?

Udalerrian bizi diren herritarren eta haien ondorengo bizi-kalitatea lortzea helburu duen udalerrria da udalerrri iraunkorra. Munduko beste leku batzuetan bizi diren pertsonekin solidarioa den udalerrria; ezberdintasunak murriztearen alde borrokatzen duen eta erabakiak hartzean herritarren parte-hartzea bultzatzen duen udalerrria. Guzti hori udalerrriaren identitatetik eta baloreetatik abiatuta.

Honako konpromisoak hartzen ditu bere gain:

#### Pertsonen BIZI-KALITATEA garatzea

- × Oinarrizko beharrak asetzea: bizitokia, janaria, osasuna, hezkuntza, lana, gizarte-harremana, komunitatean parte-hartzea, ingurune osasungarria, ongizate fisiko eta emozionala,....
- × Egungo nahiz etorkizuneko belaunaldiei duintasunez bizitzeko aukera ematea.
- × Munduko beste lekuetan biz idiren pertsonak kontutan hartzea (nazioarteko elkartasuna eta lankidetzeta)
- × Bizitzeko erritmo pausatuagoa eta lasaiagoa bultzatzea, norberaren ongizatea eta pertsonen arteko harremanen aberastasuna sustatuz.
- × Hiri-segurtasunaz arduratzea.
- × Etxebizitza izateko aukerak erraztea.
- × Aztura osasungarriak sustatzea (aurrea hartzea) eta osasuna babestea.

- × Lana izatea ahalbidetzea, kalitatezko enpleguaren alde eginez.
- × Kontsumo arduratsua sustatzea.
- × Zerbitzu publiko egokiak eta eraginkorrak izatea.

## **Gure herri-IDENTITATEA berreskuratzea eta zaintzea:**

- × Herriko kultura bultzatzea.
- × Euskara berreskuratzea, haren ezagutza bultzatzea eta eguneroko bizitzan erabiltzea sustatzea.
- × Gure gizartean garrantzi handia izan duten hainbat ohiko baloreak berreskuratzea (adib.: auzolana)
- × Gizarte-balore unibertsalak sustatzea (adib.: errespetua, ezberdintasunaren balorea, ahalegina, elkartasuna, ...) eta komunitatearen onerako izan daitezkeen balore berrietara zabalik egotea.

## **Herri-garapenaren onurak Legazpiko herritar oroengana irits daitezela lortzea eta, ondorioz, desberdintasuna murriztea (BERDINTASUNA):**

- × Herritar guztien eskubideak errespetatzea eta haien betebeharrak aintzat hartzea.
- × Gizartean baztertuta dauden edo baztertuta izateko arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzea: mendeko pertsonak, langabezian daudenak, ezgaitasunen bat dutenak...
- × Oinarrizko prestakuntza iraunkorra sustatzea eta teknologia berriak bultzatzea
- × Oinarrizko errentak bermatzea, pertsonak bizitza duina izan dezaten.
- × Kohesio soziala bultzatzea eta suspertzea.
- × Herritar oro zerbitzu orotara irits dadin irisgarritasun fisikoa erraztea.
- × Gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasuna sustatzea/onartzea.
- × Baliabideen eta aberastasunaren bidezko banaketa sustatuko duen kudeaketa publikoaren alde egitea.

## **Legazpiarrek eta udalerriko agente sozial desberdinek (publikoak nahiz pribatuak) Legazpiko udalerrria eraikitzen lagun dezaten, mekanismo eta egitura egokiak martxan jartzea (PARTE-HARTZEA):**

- × Haurtzarotik hasita, gizartean parte-hartzea sustatzea.
- × Elkarteetan eta taldeetan elkarbizitzaren garrantzia onartzea eta baloratzea.
- × Herritarrek udal-kudeaketan parte har dezatela bultzatzea.
- × Udaletxeko sail desberdinek ikuspegi orokor batekin lan egin dezatela bultzatzea; halaber, beraien artean eta bestelako administrazio eta erakundeekin ondo koordinatuta lan egin dezatela (zeharkakotasuna).

*2007ko maiatzak*



LEGAZPIKO  
UDALA

## I-c ERANSKINA



### IRAUNKORTASUNAREN EKONOMIA ALDERDIA LEGAZPIN

**Hauxe da garapen iraunkorra: egungo belaunaldiaren behar guztiak asetzen dituen baina bere beharrak asetzeko etorkizuneko belaunaldien ahalmena kolokan jarriko ez duen garapena.** Brundtland txostena. 1987. NUESTRO FUTURO COMUN.

**Ekonomia iraunkorra, bakar-bakarrik, ondoko printzipioak bere egingo dituen zibilizazio-aldaketatik abiatuta lortu ahalko da: gizakiok naturaren parte gara -ez gaude beste espezieen gaitetik-, eta Lurraren administratzaile gara eta ez haren jabe.**

*Roberto Bermejo. Ekonomia iraunkorra. 2001.*



### ZER DA, EKONOMIAREN IKUSPUNTUTIK, UDALERRI IRAUNKORRA IZATEA?

Herriko ekonomia bizia sortzeko eta ziurtatzeko konpromisoa hartuko duen udalerrria da; ingurumena babestuz, inbertsioa eta enplegua bultzatuko duen udalerrria.

Honako konpromisoak hartzen ditu bere gain:

#### Ekonomia ingurumenarekin modu bateragarrian dibertsifikatzea:

- × Jarduera ekonomiko desberdinen sortzea eta mantentzea sustatzea, bai kopuruan bai haiek osatzen duten jarduera-sektoretan.
  - Ingurumenarekin errespetutsua izango den industria-jarduera bultzatzea: minimizatzea, hondakinen bilketa eta kudeaketa, energia berriztagarriak, energia-eraginkortasuna, mugikortasun iraunkorra,...
  - Herriko merkataritza-jarduera sustatzea eta zerbitzu kalitatezkoak eta iraunkorrak.
  - Tokiko turismo iraunkorra sustatzea.
  - Lehen sektorea bultzatzea eta, modu berezian, nekazaritza ekologikoa.
  - Baso-ekoizpen iraunkorra bultzatzea.

#### Ekonomia-jardueretan ingurumen-irizpideak sartzea:

- × Ingurumenaren kudeaketa bultzatzea eta ekonomia-jardueretan ingurumenarekiko jardunbide egokiak har daitezela sustatzea.
- × Ekonomia-jardueretan natura-baliabideak modu eraginkorrean erabil daitezela bultzatzea.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

## I-c ERANSKINA



- × Jardueren kokapenean iraunkortasun-irizpideak sartu: lurzoru degradatuak eta/edo aurretik urbanizatutakoak berreskuratzea ...
- × Legazpiren garapenerako garrantzitsuak diren azpiegituren sustapenak sor dezaketen gizarte-eta ingurumen-inkonfiantza ebaluatzea; horretarako, aukera desberdinak aztertu beharko dira eta ingurumena eta herritarren bizi-kalitatea errespetatuko duen aukeraren alde egingo da.

### Enpleguaren kalitatea bultzatzea:

- × Enplegu egonkorra, kalitatezkoa eta ongi ordaindutakoa sor dadila sustatzea.
- × Enplegua lortzeko zailtasunak dituzten kolektiboen lan-merkaturatzearen alde egitea: ezgaitasunen bat duten pertsonak, epe luzean lan gabe daudenak, prestakuntza gutxiko pertsonak, etorkinak, emakumeak, gazteak,....
- × Herriko enplegua eta autoenplegua sortzea eragingo eta bultzatuko duten neurriak hartzea, herriko ekonomia sendoa eta ez mendekoa lortzeko.
- × Garapen iraunkorarekin lotutako etorkizuneko lanbideak eta jarduerak aurreratzea, bestelako jarduera ekonomikoetara eta enpleguetara igarotzea ahalbidetuz.

### Toki-merkatu iraunkorra sustatzea:

- × Herriko jarduera ekonomikoekin lan egin praktika korporatibo onak sustatzeko eta ezartzeko.
- × Enpresen arteko lankidetzak sustatzea estrategia eta baliabide komunak erabiltzeko.
- × Herriko eta eskualdeko kalitatezko produktuen merkatua sustatzea.
- × Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak sustatzea.
- × Bidezko merkataritza bultzatzea.

### Udalaren kudeaketan iraunkortasun-irizpideak sartzea:

- × Udalaren kudeaketa ekonomikoan aurrezteko irizpideak ezartzea.
- × Gastu publikoa finantzatzeko zorpetzea saihestea, etorkizuneko belaunaldiak gure egungo gastua finantzatu beharra izan ez dezan.
- × Iraunkortasunarekin bat datozen jokabideak sarituko dituzten politikak ezartzea.
  - Iraunkortasun-irizpideekin ekoiztu eta kontsumitzen lagunduko duten sentsibilizazio-kanpainak egitea.
  - Iraunkortasunaren aldeko jokabideak sustatuko duten zerga politikak ezartzea.
  - Jokabide iraunkorrei derrigorrezkotasun-izaera emango dieten arauak onartzea.
  - Herritarren jokabide iraunkorrak sustatuko duten baliabideak eta azpiegiturak eskaintzea.

2007ko maiatzak